Kinkinen I ertsurak

~~P O T R E T E G I L L E   B A T E N   E R T S U R A K~~ – (1)

==========

~~Pethonen~~ ~~Jukutriak~~

Zati bakarra

====

Egilleak:

--------

Kinkin - ~~Nausia~~. Pethan eta Mattin hunen langilleak.

Dardara eta Gogorra, gizon ~~ehaharrak~~.. zaharrak

Bohemia...gizon adinekoa..

...............

Estradan: Erdian potret machin egiazko edo gezurrezko bat hiru zangoko baten gainean ohial beltz ~~batekin~~ estalia. Mahin baten gainean potret andana bat, bai eta murruietan dilindan. Hiru kadera.

------------

I- Kinkin ~~Nausia~~ suitik.. Pethan eta Mattin, mainean jarrita potret arrañatzen.

Kinkin ~~Nausia~~: (Kechu) Kanpoan Joaiten ezpazera, makhilla ukhaldika igorriko zaitut....Au hi emendik kanporat...(Norbait pusatuko balau lez egiten du eta atheratzen da).

II-Mattin eta Pethan, potret arrañatzen....

Mattin- Norbait jin dok sos galdeska...

Pethan. Nola dakik ba..?

Mattin. ~~Nausia~~ Kinkin kechu delakotz.

Pethan . Artuendun norbait.

Mattin. Hemen etheratzen dena gaitik izanen dituk berriz ere artuendunak.. zorrotk

Pethan. Eztik bururik gure nausiak...

Mattim. ~~Sosa gutiago~~... Ez zonk ere

Pethan. Eztek au sosa egiteko tokia... Ez, Sosa egiteko, potret athelie

~~Mattin. Eta nola eztiok erraiten~~ .?

(1) Espainioko – Los apuros de un fotografo-tik atherea

rrak behar dik egon pasai handia den toki baten,denen bistan ez au bezela nehork ikhusten eztuen lekuan.

Mattin. Eta nola eztiok erraiten..??

Pethan. Ez.Behar diat sal arasi.

Mattin. Sal-arasi..?? Nork erosteko..??

Pethan. Nik...

Mattin. ~~Baaaa~~ Hik..!!!

Pethan. Bai...

Mattin. Errekara joanen hiz.Faillita eginen dok berehala ..

Pethan. Edo ez..

Mattin. Eta nola esarrikok saltzera.????

Pethan.~~Agaaaaaaaaa~~...Nola..? Makhurrik gabeko jukutri zerbaiten bidez.

Mattin. Eztiat konprenitzen...

Pethan. Behar diat nobaitzukin mintzatu,istruzioneak emaiteko,zer eta nola egin behar duten erraiteko,gure nausia,magazin au saltzera esartzeko.

Mattin. (Zerbeit ahitu balu lez burua alchata) Ago ixilik..Or dek nausia.

II

Mattin Pethan eta nausia.

Kinkun Sartzen da

~~Nausia.~~ Kinkun. (Kechu) (Finki) Jin da nehor???

Pethan. Ez,jauna...

~~Nausia.~~ Kinkun. (Kechu).Ez behar ere...Au ezta soportatzen ahal...(Finki) Orai ere beste zerga berri bat...A-mar li-be-ra-ko tin-bre bat behar dutela atheratzen diren potret bakhoitzak.Ahitzen duzue??

(Arat-onaka estradan)..

Pethan. Soberazko dela uzte dot,jauna..

Mattin.~~Gaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa~~...Chuchen dela uste dot nik.

~~Nausia. Chuchen...??? Birritan emendatu zaizkite etcheko errenta.~~

Nausia. Chuchen...!!! (Atheratzen du zakeletik papel molcho bat eta ~~[illegible]~~).Eztakizue ontza nik ze zerga pagatzen dodan..(Effeullatzen ditu banazka).Alokazion familial,chifre d'affaires,sekurite sozial,impos sur revenu, eta botiera guziak...Gainerat berrikitan emendatuak etche= errenta,elotrika,ura,gasa..Lehengoakin ezin bizi eta horai zerga berriak...Ez eta ez..Ez berririk eta ez zaharrik.... utziko dut ofizioa eta kitu...(Estradan harat hunat..kechu.)

Mattin. (Suititzen da) Parkatu jauna..

~~Nausia~~ Kinkin= Zu ichilik...

Mattin. (Eskuan artzen ditu potret batzuk) Potret hunek eroan behar ditut..

Nausia. (Kinkin) (Kechu) Egizu nahi duzuna..Emen irabasten dena gaitik, eztu balio lanean artzea....Ni athelierra izten noia..

Mattin. Egiten ahal duzu nahi duzuna..~~Z[illegible]~~..

Nausia. (Kinkin) Nahi dutana....????

Mattin. Zu zera ~~[illegible]~~ manatzen duzuna..

~~Nausia~~ Kinkin. ~~[illegible]~~...Manatu..??

Mattin. Zu zira nausia..

Nausia. (Kinkin) Edo azkenengo muthila..

Mattin. Ene oponionea....

Nausia. (Kinkin) Zuk eztuzu opinionik egiteko derechorik...

Mattin. Zuk ere ez jauna,eni afrunturik egiteko.

~~Nausia~~ Kinkin. Zoiaz mille debrukin joan behar duzun lekurat..

Mattin. (Beretzat)hau hok gizon mokhorra...(Biltzen ditu potretat papel baten eta peeparatzen da atheratzeko.) (Pethaneri belarrirak.) Bakarrik uzten diat ~~animale~~ gizon basa hunekin... En Kas Zerbait egiten

badirkiko badaukezki ~~badiek askhi~~ duk ohiu bat egitea..(Atheratzen da).

Kinkin ~~Nausia~~= (Jartzen da eta ari da papel batzuk leitzen).

Pethan. (Beratzat) Afferak ontza dira.(Eskuiak frotatzen ditu)
Iluntzea gabe athelierra enea da...

Kinkin Nausia= ( Jaikitzen da,lehiotik begiratzen du,jarri eta jeikentzen..promenan ari da estradan..arrestatzen da..)

III
Nausia eta Pethan.

Pethan.(Gochoki) Heri zira,jauna..?

Kinkin Nausia. (Idor)Midikua zira.??

Peth. Ez...baina..

Kinkin Nausia. (Idor) Edo merechala..??

Pethan. Ez,jauna...ez...

Kinkin Nausia. Ba,orduan egon ichilik...

Peth. Parkatu jauna, baina...nahi nuke zerbait ichileko agertu.

Kinkin Nausia.(Bereala,estonatu baizen bezala) Zer...?

Pethan. Nahi nuke ene konturat lanean ari..

Kinkin Nausia. Zure konturat..???

Pethan. Bai jauna, Saltzeko den potret athelier bat erosi nahi nuke..

Kinkin Nausia.(estonatua) Po-tret athe-li-er bat e-ro-si na-hi du-zu-la ??

Pethan. Bai,jauna, bai;potret athelier bat.

Kin Nausia. Eztuzu zergak pagatzekorik atheratzen..bereala faillita eginen duzu...

Pethan. Zure konseillu on batzukin behar bada atherako niz...

Kin Nausia. Nik konsilluak eman..?? Ez,ez..Nik nahiago nuke ene potret athelier zikin au saldute banuke..

Pethan. Bai...?? Ba,nik erosiko dautzut..

Kin Nausia. Eeeeh. Zuk e- ro-si..??

Pethan. Ba,Ba...

Kin ~~Nausia~~. Jostetan ari zira..???

Pethan. Ez..Ez..Saltzeko baduzu nik erosiko dautzut...

Kin ~~Nausia~~. Bon...Mintzatuko gira sarri...

Pethan. Beraz,sarri-arte....Behar det komisione bat egin...

(Papel batzuk artu eta atheratzen da.)

N

IV

Nausia bakarrik

Kinkin ~~Nausia~~. (Estradan promenan).Erosiko duela erran du...bai eta nik posik saldu..Bai,bai,..Saduko diozkat nik ene affera guziak..Kobratzeko dudazan artuen,pagatzeko dudazan sos eta sosik gabe jiten dirian ene klient guziakin....

V

Nausia eta Bohemia.

Bohemia.(Joiten du athea)Sartzen ahal niz,jauna..??

Kin ~~Nausia~~.(Idor) Zer???

Bohem. Sartzen ahal nizen..?? (Sartzen da)

Kin ~~Nausia~~. (Bohemia ikhusita arritzen da eta estrada erdian esku biak burura eroanda). Jainko maitea..!! Bohemia bat...
(Bohemiari) (Idor) Zer nahi zinuen..???

Bohem. Ez deus bat,jauna...Ez deuz bat..

Kin ~~Nausia~~.(Samur) Ez deusik ezta emen saltzen...Eta bertzerik nahi ezpaduzu aski duzu emendik fueratzea..

Bohem. Eztu balio samurtzea,jauna...Eztizut sosik galdetuko..

Kin ~~Nausia~~.Ez nik emanen ere....

Bohem. (Jartzen da) Jarririk mintzatuko gira...

Kin ~~Nausia~~.Presatua niz,zurekin denporea galtzeko...

Bohem.Utzi egidazu atsa artzen,jauna...

Kin ~~Nausia~~.Bai,bainan ez besterik,eeehh !!!

Bohem. Ez,jauna,ez.A la fe,eztet enia eztenik hunkitzeko usairik..

Kin ~~Nausia~~.(Beretzat) Bohemia izan behar orretarako...

Bohem.Ontza dakizu zuk,jauna,ze tristea den gure bizia munduan...!!

Kin ~~Nausia~~.Bai,bethi arno eta festa..!!! (Beretzat)

Bohem. Beti kurri...

Kin ~~Nausia~~.(Beretzat) Eta beti toki berean..

Bohem. Nehok ostaturik ez eman nahi...

Kin ~~Nausia~~. (Beretzat) Eta nun nahi artzen..

Bohem. Nehok fitzik ez eman nahi..

Kin ~~Nausia~~.(Beretzat) Eta ahal dana artzen...

Bohem. Goses nilak...

Kin ~~Nausia~~.(Beretzat) Edo oilloz aseak....

Bohem. Egarriz itoak...

Kin ~~Nausia~~.(Beretzat) (Idos) Edo arnos anpatuak...

Bohem. Arduraz preso atchikiak...

Kin ~~Nausia~~.(Bohemiara,kechus..) Eta ez behin ere lehertuak....Allo!! Utzi historio-misterio ohiek eta erran egidazu zertan jin ziran..??

Bohem. (Suititzen da) Orra jauna.Eztakik nik ze potreta dun papel bat behar dugula ta...zuk konprenitzen duzu dudarik gabe, jauna,eta potret bat erosten jin niz,bazendu saltzeko...

Kin ~~Nausia~~.Potreta atheratzeb erran nahi duzu...

Bohem. Ez,jauna,ez,...Erosten...

Kin ~~Nausia~~.Erosi..bainan,norena... Erosten ??, ze uste duzu dela zu. Bazar bat..??

Bohem. ~~Edozein~~...(Asten da main-gaineko ~~eta murruko~~ potretat ikhusten)

(eta bat eskuan artuta) Ezinuke salduko, jauna, onako bat.??

Km ~~Nausia~~.Ez olakorik eta ez alakorik.Orrek badu bere jabea eta utzi ori or.

Bohem. Ezinuke, ~~jauna~~, zaharño bat, jauna.???

Km ~~Nausia~~.Ez zaharrik eta ez berririk..Erran dutzut, nahi baduzu potreta behar duzula athera...

Bohem.Edozoin aski nuke ba, jauna...

Km ~~Nausia~~.Edozoin!!!

Bohem. Ze inporta du....

Km ~~Nausia~~.Zer?? Eni trufatzen jin zira??? (Artzen du kadera eta kadera uk ukhaldika atheratzen dau kanporat) Ala hemendik fite kanpora.

Bohem.(Atheratzen da)

VI

Kmkm
Nausia eta Pethan

Pethan.(Sartzen da) (Beretzat) Egun norbaitek klinikara joan behar badu ere enia izanen da potret athelier au...

Km Nausia.Bohemia zikin ori...

Pethan.Zerbait makhur izan duzu, jauna....

Km Nausia.Eni trufatzen jin da, bohemia zikin ori...

Pethan.Da...prest zira athelier au eni z saltzeko???

Kmkm Nausia.Eztakit...Chantza gehiago ezpadot klientakin....

VII

Nausia, Pethan eta Dardara, makhilla eskuan.

Dardara.(Kanpotik) !! E-u-p..!!

Pethan. Kliant bat, jayuna..Banoa potret batzuk atheratzen...(Atheratzen da)

VIII

Nausia eta Dardara.

Dardara.!! E u p !!!

Km ~~Nausia~~.(Atheari buruz, idor.) Aitzina...

Dardara.(Sartzen da makhila eskuian eta dena dardara..)

Par ka tu ja u na...He men bi zi da po tret a the ra tza le a ?

Kin ~~Nausia~~. (Idor) Bai..Zerga biltzale bat zira edo...

Dardara.(Beti dardara) Ez ja u na..ez.Na hi nu ke por tret bat a the ra Ze da zun..

Kin ~~Nausia~~.(Idor) Zuri?? Ezta posible !!!

Dardara.No la ez,ja u na....

Kin ~~Nausia~~.Ezeralako geldi egoiten ahal...Behar dot machina expresa eta eztot..

Dardara.E go i ten a hal niz ~~[illegible]~~,ins tant pat gel di,ja u na..

Kin ~~Nausia~~.Bai...??

Dardara. Ai se, ja u na,ai se...

Kin ~~Nausia~~.Eta nola zinuke atheratzea...Suhitik ala jarrite...??

Dardara.E mein che ka de ran gus tu ra ja rri te,ja u na..(Jartzenda)

Kin ~~Nausia~~.Sari (Sarri) nikabertitzean egonen zira geldi..eh...

Dardara.Za u de tran kil,ja u na,,,za u de tran kil,....

Kin ~~Nausia~~.(Ari da machina preparatzen.Jartzen du ohial beltza burutik)

Ez mugitu orain..eh.. So hunat..

Dardara. (Gelditzen du dardara)

Kin ~~Nausia~~. Bat...biga..iru...

Dardara=.(Eroritzen zaiko burua aintzinerat)

Kin ~~Nausia~~.!! Zapristi..!!! (kaka zaharra) Plaka bat funditu dautazu===

Dardara.Pe na dot ba,ja u na...Ez ta a rraz e ne fal ta be i zan ba...O rai ko an ba i,ja u na,o rai ko an zi hur niz gel di e go nen ni za la..

Kin ~~Nausia~~.(Sañatzen du plaka) So egin hunat..ez mugitu..kasu orai..

Dardara.(Gelditzen du dardara)

Kin ~~Naisia~~.Bat..biga..iru..

Dardara=(Jausten zaiko burua aintzinera)

Kin ~~Nausia~~.(Zangoakin lurre jota) ! Ka ka..!! Bi plaka fundituak..

Dardara.Ze ra i zan da,,ja u....

Kin ~~Nausia~~.(Kechu) Zer zera...Paga eni plakak..eta zoiaz fite kanporat...

Darda. Pa ga..??? Eguberrietan igorriko dautzut zazki bat gerezi.

Kin ~~Nausia~~. Ez paga...(Kentzen dio eskuko makhila eta makhila ukhaldika atheratzen du kanporak)

IX IX

Kinkin Nausia eta Marttin.

Mattin.(Sartu eta esartzen ditu main gainean errezibo eta potretak) Or duzuz errezibo eta potretat.

Kin ~~Nausia~~.Eta nola dakazuz gibelerat??

Mattin. Ez baiziran zuchen..

Kin ~~Nausiak~~.Nola ez zuchen..???

Mattin.Nola ?? Potretak eziralakots kliant arenak eta erreziboa gaizki egina dalakots...

Kin ~~Nausia~~.Eta sosik gabe jin zira..??

Mattim.Biztan da....

Kin Nausia.~~G~~ (Penatua) Bon...

Mattin.Behar dudaz potret batzuk fini...(Atheratzen da)

Kinkin X

~~Nausia~~ bakarrik.

Kinkin Nausia.Obligatua niz athelierra saltzerat...eta berheala..Bestela errekara joan behar dot...Potertat ichuli...erreziboak ez paga. zergak goititu...Ez,ez ezta posible bisitzea...Saldu eta kitu..

XI

Nausia eta Gogorra

Gogorra.(Joiten du athea)

Kin Nausia.(Berrenetik) Aintzina...

Gogor.(Joiten du berriz athea)

Km ~~Nausia~~.(Barrenetik) ~~Ia~~ aintzina..aintzina.. !

Gogor.(Joiten du berriz athea)

Km ~~Nausia~~.(Barronean,Beretzat) Ze deabrukeri da au..(Idigiten du athea)

Gogor.(Sartzen da).Egun on,jauna.

Km ~~Nausia~~.Bai zuri ere..

Gogor.Parkatu,jauna...Pitti bat gogortua niz eta beharko dautazu, pitti bat gorachago mintzatu,plazer baduzu..

Km ~~Nausia~~.Bon ontza da.. (Belarrirat gora) Eta zer nahi zinuen ba...??

Gogor.(Eskuia belarrian) Ah..bai..denpora freskoa da..Ba zer nahi duzu sazoina da...

Km ~~Nausia~~.EZ..Eztautzut hori galdetzen..(Belarrirat azkar) Zer nahi zinuen galdetzen dautzut..

~~Gogor.?Ah??Ai??Kanaian?Bizi?Ai?Bai???Mendian?Jauna.~~

Gogor.(Eskuia belarrian) Nun bizi nizen erran nahi duzu...Ni memdian bizi niz,jauna,..mendian..

Km ~~Nausia~~.(Kechatzen arida) (Beretzat) Ezetz,gaichoa,ezetz..(Belarrirat azkar) Nahi zinuen fotografiatu...??

Gogor.(Belarrian eskuia) Urrun..?? Ez,ezta urrun,ez...

Km ~~Nausia~~.(Kechu) Jainko,maitea!! ~~Au dek komedia.~~ [zer dek komedi au] !! Eztiet deuzik konpreni arazten gizon uneri... ( Azkarki belarrirat) Zertan jinzira ba..??

Gogor.(Eskuiak belarrian) Kurri..? Bai,Zelaian ontza kurritzen dot bai

Km ~~Nausia~~.(Arras kechu).Ze gizon tresna!! (Beretzat) Eztot deuzik egiten ahal...(Kechu den gestoak egiten ditu)

Gogor.(Belarrian eskuiak) Nola ,jauna..?? Bista erran duzu?? Ba,ba.. bista ontza dot..egunas ontza ikusten dot.

Km ~~Nausia~~.(Arras kechu) ~~Zi~~( Belarrirat finki) Eta lo ontza egiten duzu??

Gogor.(Eskuiak belarrian) Ah..bon...Zer nahi nuken galdetzen duzu..??

Km ~~Nausia~~.(Buruakin kiñuak eginda) (Beretzat) azkenian ere..(Gogorrari) Bai..bai..ori bera.

Gogor.Ene potret bat nahi nuke,jauna.

Km ~~Nausia~~.(Belarrirat) Bai eta nolakoa nahi zinuke,a ba..??

Gogor.(Eskuiak belarrian)Noren dako..?. Ba,ene alaba ttippiari Amerikeetara igorteko.

Km ~~Nausia~~.(Kechu) (Belarrirat) Bainan nolakoa nahi zinuken galdetzen dautzut..handia ala ttipia..??

Gogor.Ah.. ez..Kalifornian da..

Km ~~Nausia~~.(Kechu) Ka ka.K.(Artzen ditu eskuian bi potret,bat handia eta bestea ttipia,eta erakusten dioz erranez) (Finki belarrirat) Hunakoa ala hunakoa nahi zinukez ??

Gogor.Hea unat ikusteko..(Artzen ditu bihak eskuian eta so eginik) Aaahh..Charmantak dira..Familiako norbaitzut duzuz hunek dudarik gabe..

Km ~~Nausia~~.(Arras kechu.) Bon..bon..(Kentzen dioz eskutik potretat) (Belarrirat finki) Eta zenbat z nahi zinukez..??

Gogor. Belarrian eskuiak) Presatua..?? Ez..Ez niz presatua,ez..

Km ~~Nausia~~. (Arras kechu den gestoak egiten ditu) (Belarrirat finki) Zoinbat nahi zinukezan,galdetzen dautzut..(Erakusten dioz esku bateko herriak.) Bortz ala.(Gero bi eskuetako herriak erakutzita.) Amar.

Gogor. Ba..berdinean bortz liberakoa nahiago nuke,bai..

Km ~~Nausia~~.(Kechu) Bo,bon,aski da..Jarri hemen kaderan..(Jartzen karedan machina aintzinean)

Gogor. (Jartzen da) Ba..enintzan batere akhitua,jauna..Ostion ostatuan pausatua nintzan...

Km ~~Nausia~~.(Kechu) (Kiñuka ahitzen amaiten dio machinari so geldi egoiteko

II bis

Egon geldi eta so egin ari machinari)(Jartzen da bera machinaren gibelean eta ezartzen du ohial belcha burutik.

(Beso betekin egiten ditu iru kiñu.

GOg.Irugarren kiñu edo beso ukhaldian Urchinchaegiten du.

Ken ~~Nausia~~.!! Ajuta..!! Gogorra- (Kechu zangoakin lurra jota) Plaka fundjtu zautak!.!! (Artu besotik gogorra eta pusatzen du kanporat erranez) !! Alo !! zoiaz hemendik kanporat..

Gogor. (Belarrian eskuia esarrita) Nola,jauna??

Ken ~~Nausia~~. Joaiteko kaporat ete fite..(Pusatzen du)

Gogor. Bihar jiteko erran duzu??

Ken ~~Nausia~~.(Kechu) Ez bihar eta ez etzi..(Pusatzeh du)

Gogor. Ba..emastea igorriko dot orduan bihar, sosarekin...

Ken ~~Nausia~~. (Kechu) Ez emasterik eta ez sosik...Ala fuera..

Gogor. Agur, jauna,,eta parkatu..· (Atheratzen da)

Ken ~~Agusia~~ Nausia. Agur bai..eta adio,ene affera,athelier,potret,zerga pagatze eta botiera guziei..Ezta nehor geiago trufatuko enetzaz..(Atheratzen da)

XII

Pethan eta Mittin (Sartzen dira bihak)

Pethan.Ikhusi ahal dek..?

Mattin. Zer ??

Pethan.Ze ontza egon diran Bohemia,Dardara eta Gogorra...

Mattin.Teatrolari autak dozak irurak..

Pethan.Errotu diek gure nausia...

Mattin.Eta zer ??

Pethan.Enia dela athelierra..!

Mattin.(Norbait etortzen ahitu balu lez kinu egin da)Ago ixilik, hemen dok nausia..

XIII

Mattin Pethan eta Nausia.

Ken ~~Nausia~~.(Sartzen da) Nun zizte..??

Mattin.Hemen,jauna..Zer nahi zinuke....

Km ~~Nausia~~.(Kechu) Asea nizela ofizio zikin unetan..

Mattin (Beretzat) Ezta goizegi..

Pethan. Prest zira ~~aaaaaaaaa~~ athelierra saltzeko????

Km ~~Nausia~~) (Kechu) Nola ez..arras errekarat joana niz eta..

Pethan. Nik erosiko dautzat..

Km ~~Nausia~~.Bon..Sarri eginen du papera.. Agur..(Atheratzen da.)

XIV

Mattim,Pethan,Bohemia,Dardara,eta Gogorra.(Hunek irurok sartzen dira betan)

Bohem.Dar.eta Gogor.sartzean zoko guzietara so egin da)(Irurak betah) Joan dok..í

Mattin.Bai,joan dok,debru zikiña,

Bohem. Ze gizon mokhorra..!!

Darda.Ze erroa..!!

Gogor.Eta minthua..

Pethan. Zauzte ichilik..Orai badakizue,enia dela athelier au..

Nik erosi dutalako...

Mattin. Eta ni niz lekhuko..

Beste irurak.Eta guri eskerrak...

Bohem. (!! N~~ik artu~~ dodazan ~~kadera~~ ukhaldiak...
~~Ene buruko kadera ukhaldi~~ai..

Dar. Eta ~~ene makhila ukhaldiak~~...!!
~~Eta ene bizkarreko makhila ukhald~~iai.

~~Gogor~~.Bohem.Bai,nik artuniko buruko kadera ukhaldiai.

Dard. Eta nik artuniko bizkarreko makhila ukhaldiai.

Gogor.Bai eta nik arttuniko gibeleko ostiko ukhaldiai.

XV - Lengook et nausia

Pethan.Behar diaguk trinkatu...Ekartzak Mattin botella eta basoak..

Mattin. (Athera eta ekartzen ditu bortz baso eta botella bat arno.)

Pethan.Sarri gurekin baskalduko zizte ostatuan.

Boehm. Egun aseko gituk..

Mattin.( Betetzen ditu basoak)

Denak.(Basoak eskuian artu eta chin-chin egiten dute erranez=Ire osagarrirako Pethan..

Pethan.On egin daizuela.

Denak.(Edaten dute)..

Mattin.!! To !! Behar diaguk denokin potret bat athera...

Pethan.Bai eta beroala..(Ja Ezartzen da machina gibelean)

Mattin.(Ezartzen ditu beste irurak machina aintziean.)

Kmk Nausia. (Sartzen da) Ze barraka duzue hemen..(Hirurai)

Hemen zizte berriz ere,debru zikinok!!!

Pethan.Nahi zinuke,jauna,athera azkenengo potret au..

Km ~~Nausia~~. Nik ?? Ez..ez..Ni asea niz..Ori zuretzat..(Atheratzen da.)

Pethan. (Estrada erdian publikoari begira)

Hemen finitu baita gure jostetea

Agur eta mili-esker publiko maitea,

Guk nahi izanik ~~an~~ ere ~~orori~~ plazer egitea

Ez beita beti ~~alse~~ erzech orotan erreuzitzea

Othoi arren egizue utzak estaltzea

Eta esku zartano beroz botez zuchenak zariztatzea. zariztea

A. S.